

ZM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herri-aldizkaria • 80. alea • 2023ko martxoa

MIKEL DEL VALLE

Dantzaria eta koreografoa

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com

Zorrotzako XXVI. ipuin lehiaketa 2023



Aurkezteko azken eguna: **maiatzak 12**

Info gehiago eta aurkezteko lekua: Aek euskaltegia eta Auzoka Komunitate Zentroa

SARIAK

**12 URTETIK
BEHERAKOAK**

1.SARIA: 60 euroko kultur bonoa
2.SARIA: 30 euroko kultur bonoa

**DBH eta BATXILERGOKO
IKASLEAK**

1.SARIA: 100 euroko kultur bonoa
2.SARIA: 40 euroko kultur bonoa

Osakidetzaren egoera, FEVE, Molinos Vascos eta Sader Profersa, agendan ditugun gaiak

sarrera



Zorrotzako herri aldizkaria
80. alea. 2023ko martxoa

f @ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz
e zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina

B Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jasotzen ditu.
Bilbao Edukiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

Asko dira Auzo Elkar-teak agendan dituen gaiak. Auzoarentzat lehentasunezkoak direnak aipatuko ditugu.

Une honetan, Osakidetzaren egoerak eta osasun publikoarekin zerikusia duen guztiak kezkatzen gaitu. Horregatik, Auzo Elkar-teak, Auzo Elkar-teen Federa-zioarekin batera, hainbat mobilizazio orokorretan parte hartu dugu, bereziki anbulatorioen aurrean batera deituta.

Bestalde, FEVE lurperaketa dagokionez, informazio-batza bat deitu genuen kontsulta-azterlana ezagutarazteko. Azterketa eztabaidatu ondoren, alegazio bat aurkeztea erabaki zen: geltokia geografikoki auzoan zentratuago egotea.

Orain dela gutxi, Eusko Legebiltzarrean izan ginen Molinos Vascos eraikina berreskuratzeko proposamen baten aurkezpenean ikusten. Oso gertutik jarraitzen dugu Batzar Nagusietan gai horren inguruan garatu behar den prozesua.

Sader-Profersaren gaia komunikabideetan egon da azkenaldian, TVEn hain zuzen ere. Harremanetan jarri gara emisioek kaltetu dituzten beste auzo batzuetako elkar-teekin, elkarrekin lan egiteko.

Auzo Elkar-teak lanean jarraituko du aipatutako helburuak lortu arte. Besteak beste, enpresa kutsakor horiek gure auzo-tik eta ingurutik kanpo aldentzea lortu arte!



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!
ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarriz

LASTER

*Elektrizitatea
elektronika*

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

**MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013**

FARMAKOTEGIA SUSANA URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

RISKO

Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86

Zorrotzako Muturraren hirigintza egitasmoa martxoan lizitatuko da

EAJk eta PSEk Sader eta Profersaren lekualdaketa azkartzeko konpromisoa hartu dute, baina epeak ezartzea saihestuz. Gainera, Udalak bi enpresekiko irteera-hitzarmena berritu behar du, hirigintza-plana behin betiko onartu ondoren eta konpentsazio ekonomiko baten truke, gehienez ere bi urteren buruan Zorrotza utz dezaten

AINARA GARCÍA

EAJk eta PSEk, PPrek babesarekin, zuzenketa bat onartu zioten Elkarrekin Bilbaok aurkeztutako mozio bati Bilboko Udaleko otsaileko osoko bilkuran. Mozio horren bidez, Zorrotzako Muturreko plan berezia aurten lizitzatzeko konpromisoa hartu dute. Aburto alkatearen hitzetan, Zorrotzako Puntaren Hirigintza Egitasmo bereziaren lehiaketa martxoan zehar argitaratuko da. Mozioan zehazten den bezala, ekintzak ahalik eta lasterren martxan jartzea eta herritarren parte-hartzea erraztea ezinbestekoa da.

Egitasmo honek auzoko etorkizuna hobetuko du behar-beharrezkoa den berrikuntza integralaren bidez. Hirigintza garapenaren lerro orokorrak mota orotako etxebizitza parke zabala eraiki, jarduera ekonomikorako gunea sortu eta Renfe trenbidearen lurperatzea dira.

Asier Abauntzak, Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoen zinegotziak, hirigintza proiektuaren dokumentuaren onespena urtea bukatu baino lehen izatea espero du, hau lehenbailehen ezagutarazte-

ko, gunearen repartzelatzeari eta hiri plangintzari ekinez. Honek Zorrotzako eta San Ignazioko auzokideek urteetan zehar eskatzen dutena ahalbidetuko luke, hau da, Sader eta Profersa, enpresa bien lekualdaketa.

Abauntzak, ordea, ez du oraingoan eperik ezarri nahi, sektoreko araudia behin betiko onartzeko data Renferen trenbideak lurperatzeari buruzko informazio-azterlanaren arabera izango baita, eta "hori ez dago Udalaren esku". Hala ere, gogoratu behar da Juan Mari Aburto alkateak Radio Bilbaon zehaztu zuela enpresek hiritik kanpo egon beharko luketela hurrengo agintaldiaren amaieran, 2027an. Era berean, duela zenbait urte, Aburtok berak agindu zuen bi enpresak Zorrotzatik kanpo egongo zirela 2018an. Orduan, Udalak hitzarmen bat sinatu zuen, eta, horren bidez, Sader eta Profersa hiria uzteko konpromisoa hartu zuten, plana behin betiko onartu eta bi urtera, 2,7 milioiko diru-kopuruaren truke. Baina tramitazioa atzeratu egin zen, Renferen trenbideak lurperatzeko finantzaketari aurre egiteko desadostasunengatik.

Era berean, Abautzak azaldu du lantegien irteera sinatuko den hitzarmenak ezarriko duen data baino lehen egin ahal izateko lan egingo duela Udalak. Behin aipatutako hirigintza proiektuaren dokumentua onartuta, bi enpresek lekuz aldatzeko 2 urte dituzte. Bitartean, plana onartu bezain laster, udaletxeak enpresen lan-hitzarmena berritzatzen saiatuko da bi urteak igaro baino lehen, Bilboko inguruetatik "ahalik eta azkarren aldentzeko helburuarekin".

Elkarrekin Bilbaok erregistraratutako mozio batek eraman zuen eztabaida osoko bilkurara. Mozio horrek enpresa horiek ahalik eta azkarren ateratzea eskatzen zuen, inguruko osasun publikoa eta bizi-kalitatea hobetzeko. EAJk eta PSEk egindako eta onartutako zuzenketaren ostean, Elkarrekin Bilbao eta EH Bildu kezkatuta agertu dira epe zehatzik ezarri ez duelako Sader eta Profersa enpresen lekualdaketak, eta bizilagunak "nekatuta eta zapuztuta" daudela adierazi dute.

Sader eta Profersako langileek enpresa "beharrezkoak eta seguruak" direla aldarrikatu dute

Enpresa horiek auzotik ateratzea Udaleko osoko bilkuran aztertu eta egun eskasera, Sader eta Profersako 60 langile inguru enpresaren aurrean bildu ziren haien lanpostuak mantentzea bermatuko duen lekualdaketa bat eskatzeko. Langileek ez zieten adierazpenik egin bildutako hedabideei, eta, besterik gabe, komunikatu bat helarazi zuten enpresa kutsakorrek direla ukatzeko. Era berean enpresaren berehalako lekualdatzea eskatzen duten alderdiei populistak izatea leporatu diete. "Denak ez du balio 120 familiararen ogiarekin jolasteko orduan" adierazi du aipatutako komunikatuak. Egia esan, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek enpresa berehala lekualdatzea eskatzen badute ere, gainerako udal taldeek bi enpresei auzoa uzteko eman beharreko epeetan baino ez dute alderik, eta lekualdaketa alde ere agertu dira.

Langileen komunikatuak "informazio okerrak" ere gogor kritikatu ditu, eta "enpresan hondakinak erraustea, leherketa-arriskua egotea edo bizilagunen osasunean eragina duten hondakin toxikoak tratatzea bezalako gezurrak" entzun behar izan dituztela salatu du. Beren jarduerak seguruak eta beharrezkoak direla ziurtatzen dute langileek, eta ez dutela eraginik airearen kalitatean eta osasunean. Enpresa bietan segurtasun neurri guztiekin eta ahalik eta teknologia onenak aplikatuz lan egiten dela ziurtatu dute.

Bestalde, Auzo Elkarrekin komunikatu baten bidez argi utzi nahi izan du inoiz ez duela enpresa horien itxiera eskatu, lekualdaketa baizik. Elkarrekin ustez, instalazio berriek hirigunetik kanpo egon beharko lukete "bizilagunen osasunari eta bizi kalitateari kalterik ez eragiteko".



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Auzo Elkarateak hiru alegazio aurkeztu dizkio lurperatze-proiektuari

ZORROTZ MORROTZ

Auzo Elkarateak hiru alegazio aurkeztu dizkio FEVEren geltokia lurperatzeko proiektuari. Zehazki, proposatu du Ignacio Mirandan planteatutako sarbideak auzoaren erdigunetik gertuago egon behar duela; Alazne López Etxebarria parkean planteatutako sarbide-kanoiak igogailuak izan behar dituela; eta, azkenik, Bidegain eta Zazpilanda inguruan aurreikusitako larrialdiko aireztapena beste

eremu batera lekualdatzearen beharra, kale bizilagunei eragozpenak eta zaratak saihesteko. Halaber, Elkartea maila pertsonalean alegazioak aurkeztu nahi izan dituen orori laguntzen aritu da (aipatutako alegazio hauek eurak edo beste batzuk), modu telematikoan aurkeztu behar izateak sortzen zituen zailtasunengatik. Zebaketa zehatza baten faltan, berrehun alegazio inguru aurkeztu dituztela guztira uste dute elkarteko arduradunek.



Protesta berriak osasun publikoaren privatizazio politiken aurka

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Auzo Elkarteen Federazioarekin batera, Zorrotzako Auzo Elkarateak deituta, ehunka pertsona bildu dira hainbat aldiz azken hilabeteetan osasun-zentroaren aurrean, kalitatezko lehen arreta eta "privatizazio-politiken" amaiera eskatzeko. Era berean, larrialdi-zerbitzuen kolapsoa, lehen arretako medikuen eskasia eta ambulatorioetan aurrez aurreko hitzordua lortzeko zailtasunak ere salatu dituzte protestetan.



Zorrozgoiti bidean espaloia egiteko lanak hasi dira

ZORROTZ MORROTZ

Zorrozgoiti bidean, FEVE trenbidearen eta Zorrotza-Kastrexana errepidearen artean espaloia egiteko lanak hasi dira. Bilboko Udalak jakinarazi duenez, lanek bi hilabete iraungo dute.

Galtzada eta aparkalekuak okupatuko dira, baina ibilgailuen zirkulazioa baimenduta egongo da eta bidea etengabe egongo da libre oinezkoentzat.

TXOKO FEMINISTA



1909an AEBetan ospatu zen lehenengo aldiz Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna, martxoaren 8an. 1975ean, Nazio Batuek errekonozimendu ofiziala eman zioten egunari, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna deituta izatetik, Emakumeen Nazioarteko Eguna izatera pasatuz. Urte asko igaro dira ordutik, baina gaur egun, M8a ospatzen jarraitzeko arrazoiak baditugu:

- Historia, literatura eta zientzia liburuetatik ezabatuak izan gara.
- Oraindik ere komunikabideek eta publikitateak objektu sexualtzat gaituzte.
- Botere erakundeetatik kanpo gaude.

- Indarkeria matxistak jipoitzen gaitu.
 - Sexu-esplotazioaren biktimak gara.
 - Jazarpena eta sexu erasoak jasaten jarraitzen dugu, eta epaituak izaten gara hauek salatzerakoan.
 - Lanean ordu gehiago sartu eta gizonen baino gutxiago kobratzen dugu lan berdinetatik.
 - Zaintza lanen arduradun ia bakarrak izaten jarraitzen dugu.
 - Lan-merkatuan amatasunetatik zigortuak gara...
- Horregatik, martxoaren 8an ez gaitzazu zoriondu... baina gure eskubideen defentsan ez ipini trabarik!!

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Zer da zikinkereri hori?

Sader eta Profersaren balizko lekualdaketa boladan dago berriro. Enpresa horien jarduerak gure osasunerako arriskua dakarrelako inolako ebidentziarik gabe, ukaezina da usain txarrek, kamioien etengabeko joan-etorriek, Profersaren emisioek... gure bizi-kalitatea kaskarragoa izatea eragiten dutela. Onartezina da horrelako lantegiak herrigune batean kokatzea gaur egun. Izan ere, ez da tximiniatik ateratzen den kea bakarrik... Eta hori frogatzeko, argazki hau: Sader-Profersaren teiltua. Ez dakigu zer den zikinkereri hori, baina ez du ematen oso osasungarria izango denik gure arnas sistemarentzat.



Argazkia: @20gazte

Jai-Alai
kafetegia

Abaro estrata, 12
94.490.12.59

B
Bizifitness

Zure zain gaituzu
Zalbidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora

S A Z
ONDEGIAK

**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

// Oparitu didaten hiztegi txiki batekin banoa poliki-poliki euskara ikasten //

ELIRIANGIE PARRA

Jaiotokia: Maracaibo (Venezuela).
Noiztik Zorrotzan: 2022ko martxotik.
Adina: 21 urte
Lanbidea: Langabezia.

Orain dela urte bat heldu zen Eliriangie Venezuelatik auzora. Familia eta lagunak dira gehien sumatzen duena faltan, baina bertan topatu duen giroa eta bizi-kalitatea ez lukela aldatuko adierazi digu.



NAROA PEÑA

Nolatan eta zergatik heldu zinen?

Zorrotzara heldu ginen orain dela urte bat, nire senarra, nire alaba Evangelin eta hirurok. Hona etortzea erabaki genuen, batez ere, momentu honetan gure herrialdean dagoen egoeragatik. Han egoera politikoa ezegonkorra da. Gaur egun, nire jatorri herrialdean dirua duten familietan, diru hori beste herrialde edo beste hiri batzuetan bizi diren senideek bidalia da, edo aurretik gizarte-estatus altua zuten. Zerbitzu medikoak ordaindu behar dira, eta injekzioak, gasak... aurrez erosita eraman behar dira ospitalean arreta izateko. Hona etortzeko beste arrazoi bat horixe izan zen: gure alaba askotan gaixotzen zen, eta ezin genuen ordaindu gastua. Eskerrak nire amak hogeitau inguru daramatzala Zorrotzan, eta laguntza bidaltzen zigula. Orain, berarekin bizi gara auzoan, eta poz-pezik gaude.

Gogorra egin zitzaizun lan eta bizi ohituetara moldatzea?

Ez. Banekien zorte-ona probatzera etorri nintzela, beraz gogo irekiarekin etorri nintzen. Gogorra egin zitzaidan gauza bakarra hotza izan zen (kar, kar).

Oso ezberdina da hango bizimodua gurearekin alderatuta?

Bai. Hemen bizi-kalitate handiagoa dago. Haur guztiek aukerak dituzte.

Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizuna?

Guztia. Benetan!! Adibidez, nire alabaren ikastetxea, auzoan antolatzen diren jarduerak eta ekitaldiak... Jendea oso atsegina da, eta denetarik dugu: saltokiak, bankuak, gimnasioak, parkeak, mota guztietako garraioak... ez dugu Bilbo erdira joan behar ezertarako.

Zer da zure jatorritik gehien sumatzen duzuna faltan?

Nire familia eta lagunak bereziki.

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua Zorrotzan?

Goizez haurra eskolara eramaten dut eta jarrera etxera bueltatzen naiz janaria prestatzera, etxea txukuntzera, etab... Arratsaldez, Evangelinen bila bueltatzen naiz berriro eskolara, eta bere ikaskide eta haien gurasoekin batera, parkera joaten gara. Kuadrilla jatorra sortu dugu!

Zure herrian zein lanbide zeneukan?

Batxilergoan graduatu nintzen, baina urte horretan bertan haurdun geratu nintzen. Nire alaba jaio eta gero, batzuetan, jabetxe batean lan egiten nuen zerbitzari bezala. Orain, nire ikasketak hemen bukatu nahi ditut, horrela lana azkarrago aurkitu ahal izateko.

Euskara ikasi duzu?

Poliki poliki banoa zerbait ikasten. Lagun batek oparitu dit euskarazko hiztegi txiki bat gehien erabiltzen diren hitzekin. Euskara ikasteko asmoa daukat, bai. Gustatuko litzaidake ikasi ahal izatea.

Bukatzeke, zure herrira berriro bizitzera bueltatzeko aukera aurreikusten duzu? Ala Zorrotza bizitza garatzeko eta betiko geratzeko lekua izango da?

Momentuz ez dut horretan asko pentsatu... Denbora gutxi daramagu hemen, oso gustura, eta momentuz hemen egon nahi dugu. Etorrizunean, batek daki...



“ **Arratsaldeak alabaren ikaskide eta haien gurasoekin pasatzen ditut parkean. Kuadrilla jatorra sortu dugu** ”



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Regalos Omega


oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com

Kun-kun, musika eta kultura euskaratik eta euskaraz



Eskolako eta etxeko hormetatik haratago euren haurrak euskaraz bizitzeko ezintasunaz kezkatuta, auzoko guraso euskaldun batzuk pauso bat aurrera egin behar zutela ikusi zuten. Horrela sortu zuten Kun-Kun kultur elkarte. Egun umeentzako musika eskolak eskaintzen dituzte eta kultur jarduerak antolatzen, euskaratik eta euskaraz.

TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ | **ARGAZKIAK:** KUN KUN ELKARTEA

Alaitz Aldabaldetrek hiru umeren ama euskalduna da eta beti izan du kezka berbera, semeak eskolaz kanpoko jardueretara eramatean beti erdarara pasatu behar izaten dutela. “Momentuz eurak erosoago bizi dira euskaraz eta horrela izaten jarraitzea nahiko nuke ahalik eta denbora gehien baina horretarako arnaspuneak behar dira auzoan”.

Zorrotzan euskaraz bizi diren euskaldunen komunitatea txikia izaki, zerbait egin behar zutela pentsatu zuten. Hala, 2019an guraso eta lagun batzuk bildu ziren eta proiektuari forma ematen hasi ziren. “Argi genuen haurrei zerbait erakargarria eta ludikoa eskaini behar geniola, erraz lotzeko modukoa. Era berean, balio batzuk transmitu behar genituela: hezkidetzak, kultur aniztasuna... Eta hori guztia, euskaratik eta euskaraz, euskal kultura ardatz hartuz”.

Idea batzuk aztertu ostean, musika-eskola bat sortzea erabaki zuten. Batetik, auzoan horren falta nabaria zegoelako -Barakaldo zein Bilbora jo behar dute musika ikasi nahi dutenek-. Eta bestetik, musikak duen izaera transbertsalagatik, bai emozioak lantzeko baita adimena garatzeko. “Barakaldoko Hala Dzipo musika eskolara hurbildu ginen eredu gisa hartzeko eta irizpide batzuk eman zizkiguten”.

Hala ere, proiektuak ez zuen berehala martxa hartu, pandemiak dena geldiarazi baitzuen. “2020ko martxotik ekainera proba pilotoa egiteko asmoa genuen, musika-eskolak zelan funtzionatzen zuen ikusteko”. Hurrengo ikasturtean, saiakera berria egin zuten eta dirulaguntza lortu. “Dirulaguntzarekin irakasleak ordaintzen dira baina materiala eta musika-tresnak bazkideen kuotekin erosi edo alokatzen ditugu”.



Musika-eskolak baino zerbait gehiago

Hiru atal ditu Kun-Kun elkartearen proiektuak. Lehen, musikaren hastapenak, 3-8 urte bitarteko umeei zuzenduta. Kanta, dantza, eskulanak eta abarren bitartez, haurrek musikarekin kontaktuan jartzen dira. Bi taldetxotan banatuta daude, 3-5 urte bitartekoak batetik eta 6-8 bitartekoak bestetik. Asteazkenetan elkartzen dira, Auzoka Komunitate Zentroan.

Bigarren atala, musika-tresnak, 8 urtetik aurrera. Gaur gaurkoz, pianoa, gitarra edo trikitixa artean aukeratu dezakete ikasleek eta eskolak binaka egiten dira. Pianoa asteartetan, gitarra eta trikitixa asteazkenetan, eta Auzokan ere bai.

Musika-eskolan orotara 25 ume dabilta, gehienak ere auzoko bi eskola publikoetako ikasleak. Musika-irakasleak tituludunak dira eta umeekin ibiltzeko eskarmentua dute.

Hirugarren atala aisialdi ekintzek osatzen dute. Jarduera guztiz irekiak dira, baina izen ematea behar denean, lehentasuna dute eskolako umeek eta Zorrotzako haurrek. Orain arte zirku-eskola antolatuta dute, ipuin-kontalaria, magoa...

Gurasoak ere giltzarri

Kun-kunen argi dute umeak ez ezik gurasoak ere proiektuaren giltzarri direla, euskaldunak izan ala ez. "Izen-ematea egiterakoan komunikazioa euskaraz edo erdaraz egin nahi duten jarri behar dute. Gaztelera aukeratze-

***Hiru atal ditu
proiektuak: musikaren
hastapenak,
musika-tresnak eta
kultur ekintzak***

***Guraso eta umeekin
inertziak gainditu eta
euskarara aldatzea
bultzatu nahi dute***

kotan, beste momentu edo modu bat bilatzen da beraiei gauzak azaltzeko. Baina defektuz euskaraz funtzionatzen dugu". Horrela, euskal hiztun potentzialak direnekin inertziak gainditi eta dinamikak aldatzea bultzatu nahi dute.

Horrez gain, guraso eta umeen artean ere euskarazko dinamikak sortzen saiatzen dira eta horretarako jarduera propioak antolatzen dituzte, besteak beste, "ContaKids" (haur eta gurasoen arteko akrobazia-jolasak).

Proiektua oraindik txikia bada ere, luzera jarrita dute begirada. "Gustuko genuke espazio propioa izatea, gero eta haur gehiago hartu ahal izateko, instrumentu gehiago eskaini ahal izateko...". Agurtu aurretik, aurtengorako sorpresa batzuk gordeta dituztela aitortu digute. Adi egon, guraso eta umeak!

MIKEL DEL VALLE: Dantzaria eta koreografoa

**// Dantzariok
medikuek baino
urte gehiago
behar ditugu
ikasketa arautuak
amaitzeko //**



“ **Eskolaz kanpoko ekintzetan hasi nintzen dantzan hamar urterekin. Txikitatik bete nau dantza egiteak** ”

Argazkia: Iratxe Rodríguez

Mikel hamar urterekin hasi zen dantzan eskolaz kanpoko klaseetan. 18 urte besterik ez zituela Bartzelonara, Madrilera edota Sevillara joan behar izan zuen dantzan aritzeko ametsa bete ahal izateko, garai hartan gure herrialdean ez baitzegoen eskaintza akademikorik. Arriaga antzokiak ballet garaikide bat koregrafiatzeko eta zuzentzeko eskaerak, auzora itzultzeko aukera eman dio. MdV dantza konpainia propioa sortu du, eta Netflixen ekoizpen handietarako koreografiak prestatzen aritzen da. Eta gutxi balitz, Alazne Memorialaren kultur kudeatzailea ere bada.

TESTUA: AITOR MARÍN

Nola piztu zitzaizun dantzarako grina?

Barregarria dirudi, baina osabak Dirty Dancing filma jartzten zidan eta nik flipatu egiten nuen. Txikitik, karate klaseetan apuntatuta nengoenean, erakustaldi bateratuak egiten genituen balleteko ikasleekin. Horiek ikustean, benetan gustatzen zitzaidana dantza egitea zela konturatu nintzen. Txikitatik, dantza egiteak betetzen ninduen.

Urte asko eman dituzu kanpoan ikasten eta trebatzen.

Eskolaz kanpoko saioetan hasi nintzen dantzan 10 urterekin. Asko gustatzen zitzaidan arren, aisia gisa hartzen nuen. Hazten joan nintzenean, Bilbon akademietara joaten hasi nintzen, harik eta dantza ogibidea hartu edo ohiko karrera bat ikasi nahi nuen erabaki behar izan nuen arte. Baina behin bakarrik bizitzen da, eta benetan gustatzen zitzaidanaren alde egin nuen. Ballet klasikoa ikasten hasi nintzen, irakasle oso gogorra izatearen ospea zuen Jon Beitiarekin. Profesionalki aritu nahi nuen eta horrek kanpora joatera behartu ninduen. Hamar urtez kontserbatorioan ikasi nuen, Madrilan eta Bartzelonan. 6 urte erdi-mailan eta 4 goi-mailan.

“**Dantzan hasi nintzenean ez nuen imaginatzen koreografiak sortuko nituela. Gaur egun sortzeak horiek dantzatzeak baino gehiago betetzen nau.**”

Ezinezkoa zen dantza ikastea hemen?

Zoritxarrez, ez zegoen kontserbatoriorik profesionalki aritu ahal izateko behar den trebezia lortzeko. Gaur egun, goi mailako *Dantzerki* kontserbatorioa Sarrikon, eta erdi mailako kontserbatorioa Gasteizen egon arren, gabezia handiak ditugu. Erakundeek apustu handiagoa egin beharko lukete dantza-kontserbatorioen alde.

Hamar urteko prestakuntza aipatu duzu...

Medikuek baino gehiago ikasten dugu! Sei urte dira dantza-kontserbatorioan! Esan bezala, sei urte dira diziplina desberdinak egiten. Ostean, ona, konstantea eta zorionekoa bazara, konpainiengana joan zaitezke entzunaldiak egitera lanean hasten saiatzera. Horrez gain, goi mailako kontserbatorioa ere badago. Lau urte gehiago dira, eta teoriokoagoa da. Adimena handitzen duzu dantzari gisa bertan. Klase teknikoek gain, Dantzaren historia, artearen historia, ikus-entzunezko kontzeptuak eta kudeaketa kulturala ikasten dira. Ikasketa arautu guztiak kontserbatorio publikoetan egiten badira, gutxienez hamar urte dira... Sakrifikatua da oso. Eta tamalez, hemen, ia ez dago lanik.

Dantzan hasi zinenean, dantzari izateko ikasten eta trebatzen mutil gutxi egongo zineten, ezta? Bide zaila izan duzu?

Karatea egiten hasi nintzen, nire aitak ez zuelako nik dantza egiterik nahi. Billy Elliot filmaren antzekoa zen modu batean... Amak asko lagundu zidan dantza-eskoletara joateko. Ez zen normala dantza egin nahi zuen mutil euskaldun bat, baina euskal dantzak ez, eta beste diziplina batzuk egitea nahi zituena. Asko borrokatu behar izan nuen, eta gaur egun ere, euskal gizarteak, eta euskal gizartea azpimarratu nahi dut, ez du bila-

kaera handirik izan arlo horretan. Orain, irakaslea naizenez, belaunaldi berriak ikusten ditut, eta ballet klasiko edo garaikidea bezalako diziplinetan, mutil bakoitzeko 30 neska daude gutxi gorabehera.

Dantza garaikidea egiten duzu gehien bat. Ballet klasikoarekin hasi zinen... Ba al dago dantzatzera ausartu ez zaren diziplinarik?

Disziplina mota guztiak nahastea gustatzen zait. Arteen fusioaren aroan bizi garela uste dut. Ballet klasiko, garaikidea, euskal dantza, flamenkoa, edota dantza espainiarra nahastea gustatzen zait... Baina oraindik ez naiz inoiz klakea dantzatzera ausartu. Egiteke daukat.

Dantzaria, irakaslea, eta koreografoa ere bazara.

Karreraren zehar, horretarako tresnak izanda, gehiago trebatu naiz, eta profesionalki ere hazi nahi nuen. Madrilen, goi mailako kontserbatorioan, koreografian espezializatu nintzen eta pixkanaka sortzen hasi nintzen. Asko gustatzen zait, eta gaur egun interpretazioak baino gehiago betetzen nau sortzeak.


Etxera itzuli, eta MdV zure konpainia sortu zenuen, zuk zeuk zuzentzen dazuna. Zuzendari eta dantzari izateaz gain, zer beste lan egiten dituzu konpainian?

Guztiak, kar-kar. Kudeaketa, banaketa, ekoizpena, kudeaketa ekonomikoa... Bakarrik dantzatzaten nuen koreografia bat sortu nuen, eta horrekin bi lehiaketatara aurkeztu nintzen. Horietako bat irabazi, eta bestean gizonezko dantzari onenaren saria eman zidaten. Horren ondorioz, Arriaga Antzokiak deitu zidan eta ballet garaikide bat zuzentzea eta koreografiatzea eskaini zidan. Eta orduan, konpainia bat sortu beharra ikusi nuen. Hor ikasi nuen prozesu osoa, eta konpainia baten atzean dauden premia guztiak aurkitu nituen. Bide aberasgarria izan da eta lan asko eginez, asko ikasi dut. Egindako kultur kudeaketako masterrari esker, errezagoa izan dut.

Gaur egun, zure lan guztiak Arriaga Antzokiak koproduzitzen ditu...

Arriagak nire aldeko apustua egin zuen hasieratik, eta ditudan obra guztiak, hiru antzezlan eta beste hiru espazio ez-konbenzionaletakoak, Arriaga Antzokiak koprodu-

“ **Arriagatik ballet garaikide bat zuzentzeko eta koreografiatzeko eskatu zidatenean, konpainia bat sortzeko beharra ikusi nuen.**



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

**MESÓN
LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



Argazkia: Zazu Mata

zitu ditu. Gaur egun azken biekin ari gara biran. Joan den hilabetean Euskaldunako auditorioan izan genuen emanaldia, eta bertan “*Agate Deuna*” antzeztu genuen. Lan hau antzezteko, zazpi dantzari eta soprano bateko lantaldea sortu genuen.

Eta horrez gain, telebista-ko telesailak koreografia-tu dituzu.

Bai, eta hau apur bat zailagoa izaten da. Kontuan izan behar da ez dela dantzariekin lan egiten, aktoreekin baizik. Normalean zuzendariak eszenako gidoia ematen dit eta eszena horretan mugimendua egotea eskatzen dit. Dantza izan daiteke ala “mugimendua” besterik ez. Behin eszena irakurrita, eta zuzendariarekin hitz eginda, sortzen hasten naiz; lehenengo ni bakarrik eta gero aktoreekin entsatzen. Oso irekia egon behar da entsegetara eramaten den proposamena erraz xehatu edo aldatu ahal izateko, eta oso erabakitzailea ona izan behar da. Minutu bakoitzak diru asko balio duen ekoizpenez ari gara...

Arlo honetan, zeintzuk izan dira zure azken lanak?

Netflixen bi teleserie. Iaz *Sky Rojoren* azken denboraldirako lan egin nuen, aurtengo urtarrilean estreinatu berri dena. Hemen batez ere emakume protagonistekin lan egitea egokitu zitzaidan. Eta joan den urtearen amaieran, 2024ko hasieran estreinatuko den *La Casa de Papel* teleserieko *Berlin* izeneko prekuelarako lanean aritu nintzen, Pedro Alonso protagonistarekin.

Eta non sentitzen zara gusturago? Ikus-entzunezkoetan edo antzokietan? Eta ekonomikoki, zerk ematen du diru gehiago?

Diru gehiago irabazten da ikus-entzunezkoetan, gehiago inbertitu egiten delako eta industria horretan diru gehiago dagoelako. Asko gustatzen zaidan arloa da, eta abantaila bat dauka: lana ikuslearen esku geratzen da berak nahi duenean ikusteko. antzerki batean egiten den dantza ez bezala, hau iragankorra baita. Baina profesionalki, antzoki batean gertatzen dena, energia hori, publikoarekiko feedback hori, ez da ikus-entzunezkoetan gertatzen. Zorionez, biak uztartu ditzaket.

// Ez dago musika bezain asmakizun handirik //

Dantzarako abesti bat aukeratu beharko bazenu?

Ludovicoren "Underwood".

Markatu zaituen musikari bat?

Bakarra? Musikarako eta musikagatik dantzatzan dut... Niretzat dagoen asmakizunik onena da. Ahalegin bat egingo dut eta hiru nabarmenduko ditut: lehenago aipatu dudana Ludovico, Win Mertens eta gaur egungo zerbaiten adibide gisa, Rigoberta Bandini.

Eszenatoki bat?

Arriaga Antzokia, zalantzarik gabe.

Zugan eragina izandako dantzari bat aukeratu behar bazenu?

Nacho Duato.

Zure ibilbideko oroitzapen edo gertaera nabarmenena?

Arriaga Antzokitik deitu zidatenekoan nabarmenduko nuke. Horrek nire lurraldera itzuli ahal izatea ekarri zidan, urte hauetan guztietan kanpoan ikasitako guztia erakustera.

Desio bat?

Euskal Herrian konpainia egoiliarra egotea belaunaldi berriak lanbidetik duintasunez bizi daitezen. Zentro koreografiko bat sortzea ere bai, eta erakundeek dantzaren aldeko benetako apustua egin dezaten. Eta euskal antzokiek dantza gehiago programatzea ere ondo legoke.



Eta, gainera, Alazne Memorialaren kultur kudeatzailea zara. Nola iritsi zizaituzun memorialaren ardura hartzeko proposamena?

Kanpoan bizi nintzenean, memorialaren egunean hemen nengoela, ekitaldi horren berri izan nuen. Dantzazale gisa interesatu nintzen, eta inor ezagutu gabe bertaratu nintzen. Ikusi nuen guztia gustatu zitzaidan. Geroago, Amale, Alazneren ama, nirekin harremanetan jarri zen sare sozialen bidez, eta auzoan geratu ginen. Kultura-kudeaketa masterra egiten ari nintzela aipatu nion, eta memorialean sartzeari zidaten, kudeatzen zuen pertsonak erantzukizun hori

utzi nahi zuelako, eta onartu egin nuen. Iaz kudeatu nuen lehen memorialea izan zen, eta bosgarren edizioa prestatzen ari gara, nire kudeaketapean bigarrena izango dena.

Aurten ikusteko aukera izango dugunaren zerbait aurreratu ahal diguzu?

Bai, jakina! Ekitaldiaren muina dantza izango da, hainbat diziplinarekin, eta Ballet Nazionaleko dantzari bat etorriko da. Baina musika, bertsolaritza eta orain arte izan den erosotasunetik ateratzeko negoziatzan ari garen proposamenen bat ere izango da. Ea ezusteko hori ekartzea lor dezakegun!

cafe**txinbo**

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

Lápices
LIBURVENDENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA

VIA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Dis*e*N*u*A



AGENDA

Martxoak 24, ostirala

20:00 Gaztetxean.

Kontzertua:

CRIM + KALEKO URDANGAK.

Sarrera: 15/18 euro

Martxoak 25, larunbata

19:30 Gaztetxean.

Kontzertua:

ETXEKALTE

+ **ELLA LA RABIA**

+ **TXOPET**

+ **KOKATU.**

Sarrera: 10/12 euro

Apirilak 1, larunbata



20:00 Gaztetxean.

Kontzertua: **PORRETAS.**

Sarrera: 15/19 euro

Apirilak 23, igandea

Egun osoan. Bilboko Areatzan.

LIBURU EGUNeko LIBURU AZOKA.

Lapices liburudendatik 2023ko Liburuaren

Egunean parte hartzera gonbidatzen

gaituzte Bilboko Areatzan.



Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (maizta-ekaina) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi apirilaren 21a baino lehen.



Lurraz beste

Garazi Arrula Ruiz

Txalaparta. 2023. 200 orrialde.



Zimendu aintz pitzatuak dituzte bilduma honetako pertsonaiek. Zimendu egonkortzat ziztuzten horiek zimendu hauskor bilakatu zaizkie. Askotariko pitzaduretan arakatuz, helduleku afektiboetan, senidetasun-harremantetan, bizilekuetan, babes-espazioetan, lan-jardunetan gertaturiko pitzadurak irudikatzen dira, besteak beste. Aldaketa biziko gizarte-testuinguruetan, aurreikusgarri bezain aurreikusezinak dira deserrotzeak eta pitzatzeak, eta zimendu aldakorren tolesdura horietan zehar bidaia-tzen dute pertsonaiek: behinolako errotzeek gorputzean utzitako arrastoez dihardute, eta, aldi berean, errotze horien galerek edo urratzeek sorturiko ezinegon zein arinduez. Heldulekuez beste egitearen sentazioetan arakatzten duen inarrosaldi literarioa.



SU TA GAR "Alarma"

(Jo Ta Ke ekoizpenak) 2022



Aitortu behar dut Eibarko taldea lan berri bat plazartuko zuela jakin nuenean ez nuela esperantza handirik. Nahiz eta nire talde kuttunetako bat izan, 35 urteren bueltan uste nuen material berriak ez ninduela harrituko. Baina usteak erdia ustel. Diskaren lehenengo aurrerapena entzun bezain pronto nire zalantza guztiak argitu ziren. Patxadaz konposatzeko aukerak eta batez ere iaz eginko birak energia berriuzkatu ekarri dizkiote laukoteari.

Ia ordubeteko iraupena duen estudioko hamabigarren lan honek taldearen izaera ederto islatzen du. Garai guztietako influentziak nahastuta, fidela eta bihotzez eginikoa dela nabaritzen da. Oro har abesti kañeroak daude, baina erritmo lasaigoak ere bai, alde horretan maisuak direla berriro ere konfirmatuz. Oro har iraupen luzeko kantak baina luzeak ez diren seinale. Eta hori positiboa da baina zaila era berean, entzulea aspertzeko arriskua hor dagoelako.

Ohi bezala Lorentzo Records estudioan landu dute prozesu guztia Aitor Ariño teknikariarekin elkarlanean. Kalitate handiko soinu indartsua lortu dute, euren zuzenekoetan bezala. Bira aurki hasiko dute eta Bilbon apirilaren 21ean izango ditugu Santana 27 aretoan. Ez galdu aukera!



PINTXOTAN

Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 1,50 euro.

Osagaiak: txanpiak, ogia, urdaiazpiko ondua, maionesa, baratxuria eta perrexila.

Hasteko plantxa berotzen dugu eta txanpiak gainean jartzen ditugu. Gorritzen utzi behar ditugu pixkatxo batean.

Hurrengo pausoa, ali-oli saltsa egitea da. Baratxuria zatitxotan moztu eta maionesarekin nahazten dugu. Txanpi gainean jartzen dugu nahasketa.

Ogi puxka bat hartu eta urdaiazpiko ondu xerra jartzen diogu gainean. Ondoren txanpiak bere gainean. Bukatzeko, nahierara apaintzen dugu.

Txanpia ali oliarekin



JAI ALAI TABERNA

Ordutegia:

Astehenetan itxita
Asteartetik- Igandera
12:30etik - 23:00etara

**Abaro estrata, 12
Zorrotza - Bilbo**



*El 10 de
Fray Juan*

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta aforiak (erreserbatu behar da)
Aroo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



**ESKAINTZA
PROGRESIBOETAN**

**ARMAZOA +
KRISTALAK** GOI-
GAMAKOAK

265€

Sustapena indarrean + 4,00 eserferako eta
-2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS- 213/18

ibarretaluxury
OPTICA

Unean-unean?

Batzuetan badaude uneak bizialdiaz ohartarazten zaituztenak. Egunerokoaren premia eta larritasunetik aterarazi eta bizitza era zabalago batean hartzera bultzatzen zaituztenak. Atzo gauean horietako bat bizi izan nuela uste dut. Ez nioke gertaerari aparteko transzendentziarik eman gura, izatez hausnarketak puztutakoa delakoan bainago -edo tarte honetan zer idatzi ez izateak-. Era berean, jakin badakit ez naizela berezia hura bizi izanagatik, jende askori gerta baitakioke horrelakorik, zernahi dela ere arrazoia edo kausa. Edozein kasutan, gatozen harira. Berriz ere atea ireki dituen -albiste hoberik, ezin- Durangoko Plateruenan izan nintzen bart gauean, Olaia Inziarteren eta Hoferen kontzertuan. Ezagun ditut biak, baina ez oso. Esan dezadan ez naizela ikaragarri zalea, seguruenik ez diedalako behar besteko arretarik eskaini. Azkenaldian bizi nauen nagi musikalaren seinale, egia aitortze aldera. Euskal musikaren olatu berriko artistak dira, biak ni baino gazteagoak -sintomatikoa hau ere-.

Jende gutxi zegoen aretoan, espero baino gutxiago bi



ASIER URKIZA

“ *Bien- bitartean,*

uneak bata

bestearen atzetik

kulunkatzen dira.

Eta zu hor zaude,

bizitzaren esanahiaz

amiñi bat gehiago

jabetu zarelako

aurpegiarekin.

Hurrengo goizak

horrela ez dela

esango dizun

arren

musikarien oihartzunari erreparatuta. Euria goitik behera Durangon, barrarik ez Plateruenan. Jendea tra-goak eskuratzeko sartu-ir-tenean. Bi osteratxo egin ditugu guk Centro Palenti-nora. Lehenengoaren bila nindoala Hoferekin aurrez aurre egin dut topo, sarre-ran. Harritu nau egoeraren arruntak. Tipoa audioa bidaltzen-edo, bakarrik eta ondotik igarotzen zaizkionei begirada herabeak zuzen-duz. Erretzen egon balitz

sikiera. Izar poserik batere ez, dena den, eta zuzene-koaren bestelako ulerker-a-rock izarraren eskemetatik pentsaezina baita kontzer-tua hasi eta minutu batzuk lehenago sarreran egotea, lasai-lasai eta inguruko jendeaz ezaxola-. Ez dut Ho-feren kontzertuaz idatziko, ordea; Olaia Inziarterenaz baizik. Lehen kolpea kon-zertua esku-hutsik hasi izana, gitarrarik gabe eta eszenatokitik nagitsu bezala mugituz. Bigarren kolpea ahotsa, hauskortasun bitxi baten jabe, beti krak egiteko zorian eta halere indarrez beteta. Indarra eta haus-kortasunaren nahaske-tatik gauza ederrak atera ohi dira. Olaia Inziarteren kantak horren adibide pa-regabea dira. Eta musika, noski. Ulertzen ez duzulako beti amorrutxia eragi-ten dizun musika. Amorrutxia goxoa, ordea. Base elektro-nikoen gainetik altxatzen da Inziarte. Tarteka frenetiko eta alaiki, tarteka astiro eta amorrutxia, Gariren kanta hartan bezala. Bien-bitar-tean, uneak bata bestearen atzetik kulunkatzen dira. Eta zu hor zaude, bizitzaren esanahiaz amiñi bat gehiago jabetu zarelako aurpegi-arekin. Hurrengo goizak ho-rrela ez dela esango dizun arren. Unean-unekotik ha-ratago doa hau, ordea. Hori behintzat ezin ukatu. Irudi bat, Olaiaren itzala Platerue-nako hormetan proiektatua. Eta poz txiki bat barruan. Une bat (beste bat).

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com

helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Birsortu dezagun Zorrotza nortasun eta jarduera industrial baten gainean

J oan den otsailaren 16an, Zorrotzako Auzo Etxera antolatuta genuen hitzaldira hurbildu zen jende ugariarekin Zorrotzaren orainari eta etorkizunari buruzko gogoeta batzuk partekatzeo aukera izan nuen. Bai Legebiltzarrean bai beste erakunde batzuetan, Zorrotza auzoari era batera edo bestera eragiten zioten hainbat proposamen lantzen ari ginen EH Bildun, eta auzoko alderdikideek eskatu zidaten horiek komentatzera eta, bertatik bertara auzokideekin azaltzera etortzeko. Hitzaldia hasi aurretik, kideekin egindako paseotxo batean, Molinos Vascos eraikinaren aurrean, eraikina bera Zorrotzako edo Ezkerraldeko iraganaren, orainaren eta etorkizunaren metafora bikaina dela bururatu zitzaidan. Aргituko dut:

Molinos Vascoseko eraikinak industria-iragan loriatsua irudikatzen du; orainaren metafora ere bada, erakundeen utzikeriaren erruz erortzen ari den presentea. Baina etorkizunaren metafora ere izatea nahi dugu. Eraikinak berak bezalako potentzial handia duen etorkizuna. Izan ere, Zorrotza eta Ezkerraldea nortasun eta jarduera industrial baten gainean berrasmatzeko aukera handietako eremua dugu Punta Zorrotza.



IKER CASANOVA
EH Bilduko Bizkaiko
Ahalduen Nagusigaia
(@lker__Casanova)

“ *Molinos Vascos eraikina, Punta Zorrotza gunea bezala, Zorrotza eta Ezkerraldea nortasun eta jarduera industrial baten gainean berrasmatzeko aukera handiko eremuak dira*

Ildo horretan, EH Bilduk bi proposamen handi ditu Zorrotza auzoarentzat, auzoarentzat nahi dugun etorkizunerantz aurrera egingeko:

Lehenik eta behin, erakundeek beste aldera begiratzeko politikari amaiera ematea eta Molinos Vascos erostea exijitzen dugu, eraikinari balioa emateko. Ezin dugu denbora galtzen jarraitu; ezin dugu hutsik eta erabilerarik gabe eduki hain eraikin baliotsua. Horregatik proposatu genuen Legebiltzarrean, Batzar Nagusietan eta Udalean erakundeen arteko mahai bat sortzea, eraikina erosteko bide bat antolatzeko.

Jabeek ez badute erosketa onartzen, legeak baime-na ematen die erakundeei monumentu bat desjabetzeko, baldin eta jabeek utzi badute, Molinos Vascosekin gertatu den bezala. Eraikin publikoa izatea planteatzen dugu, birsortutako eremu baten epizentro geografiko gisa ulertuta. Gure proposamen zehatza eraikinerako Teknikaren eta Industriaren Euskal Museoa bertan sortzea da, (nahiz eta beste erabilera bat izan lezakeen, jakina.)

Bigarrenik, iraganean auzoarentzat oso garrantzitsua izan zen industria Zorrotzaren etorkizuna izan dadila nahi dugu. Zorrotza industria jarduera handiko gunea izan dadila berri-ri nahi dugu. Berreskura dezala Bizkaiko birrika ekonomiko handienetako bat izatera eraman zuen nortasuna eta jarduera ekonomikoa. Horretarako, Bizkaia Ibaizabal Parke Teknologikoa sortzea proposatzen dugu, Zorrotzaurren jada dagoen Parke Teknologikoa Zorrotzako Puntara eta Burteñako enpresa-parkera zabaltzea. Gune horiek bateratzea proposatzen dugu, Bizkaiko bigarren Parke Teknologiko handia sortzeko eta bertan 5.0 industria adimenduna finkatzeko, industria teknologikoa, soziala eta iraunkorra.

Azken hamarkadetan herri hau gobernatu dutenentzat, Euskadi Basurtun amaitzen dela ematen du... Bada garaia beraz Zorrotza eta Ezkerraldea utzikeria instituzionaletik ateratzeko!



Iraide

Betiko dohainik utzi beharko lukete!
Horrela kotxea gutxiago erabiliko genuke eta kutsadura gutxituko litzakete.



Ibai

Kutsadura gutxitzeko garraio jasangarrien erabilera bultzatzea beti ona da.
Bizikleten erabilera barne.

IRATZE PÉREZ

RENFEko bidaiak doan.

Jendeak garraio publikoa gehiago erabiltzeko balio duela uste duzu?



Jose

Merkeagoa edo doakoa izango balitz, askoz ere jende gehiagok erabiliko luke garraio publikoa.
Hori bai, zerbitzua ere hobetu beharko lukete.



Tania

Ipini zutenetik, tren askoz ere gehiagotan erabiltzen dugu etxekook. Halako neurriak ahalik eta gehien luza ditzatela.



Isa

Horrelako nerriak ederto iruditzen zaizkit! Jendeak kotxea uzteko pizgarri ederra dela uste dut.

ehbildu

egiteko
beste
modu bat



ASKABIDE
kultur elkarte
ZORROTZA



DARABILBO

Tailerrak/bisita gidatuak/joskintza/
kirol-ekintzak/sukaldaritza/
ikuskizunak/lehiaketak...

BILBON AISIALDIA EUSKARAZ



B
Bilbao

www.darabilbo.eus
darabilbo@bilbao.eus
607 530 132

iKasi
MiKasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**

Udalbiltza
Pinadia etbaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
● stetecampas@gmail.com

Ikastetxe Publikoak
Ikastalde etbaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
● 014159aa@hezkuntza.net

Zorrotza Hiria
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 428 01 36
● 94 428 01 37
● 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net



Praktikatu Euskaraz Gurekin!



Euskaraz praktikatu eta bizitzeko hamaika aukera ditugu zuretzat:
Mintzataldeak / Familia-ekintzak / Txangoak / Tailerrak /
Mintzodromoak / Lehiaketak / Hitzaldiak / Mendi-irteerak /
Asteburu-pasak...



EMAN IZENA HEMEN:
Zorrotza AEK
Zalbidea, 7 • 94 441 49 20
zorrotza@aek.eus

